


BALOREZKO PROPOSAMENA

Gu sortutako produktuak gaur egungo gizartean dagoen arazo bati ematen dio konponbidea. Arazo hau, giltzak nahi gabe etxean uzten ditugunean gertatzen da, batez ere, segurtasunari eta erosotasunari aurre egiteko sortu dugu geure produktua. Askotan ematen da arazo hau, gaur egungo gizartean presaka gabiltza, eta askotan gauzak gure atzetik uzten ditugu. Normalean, amnesia momentu hauek ez dute gure bizitza buruz bera aldatzen, baina hala ere, ustekabe handiak uzten dizkigute gure egunerokotasunean.



Gure ideia huts egin duten ideien berrikuspena da. Ez du misterio handirik, baina, hala ere, denon bizitza hobetuko du. Gure zerbitzuak produktu egokiak eskaintzen ditu etxean erraz instalatzeko. Gure lanak etxeke giltzak barruan uztea eragotziko du, eta hala ere, hori gertatu eta etxean giltzak ahaztuz gero, etxeke espazio fisikoan bilatuko lituzke. Bilaketa hau, sentsoreen bidez egingo du, mugimenduak detektatuko ditu eta giltzak hartzea ahalbidetuko dizu. Guk sortutako produktuari “Whiky” deritzo, eta kutxetan salduko da. Kutxen barruko produktuak gure bezeroetan oinarrituta egongo dira, hau da, haien lehentasunen eta nahien arabera aukeratu ahal izango dituzte.

Sortutako sistema ez da konplexua ezta zaila erabiltzeko. Erabilitako sistema bi sentsore erabiltzen ditu giltzak eta atea konektatzeko. Atean kokatzen denez sentsorea, mugimendua detektatzean aktibatzen da, atetik igarotzen zarenean ez baditu giltzen sentsorea detektatzen abisatzen zaitu. Sentsorekin batera, app bat eskaintzen diogu erosleari. App-aren bitartez egiten da guztia.

Aurkitu ditugu jasangarriagoak diren eta berrerabili ditzakegun materialak, ingurumena zaintzea lehentasuntzat hartzen dugulako. Gure produktuak, punta-puntako teknologia izateaz gain, erabat beganoak diren materialez eginak daude, animalien testamenturik gabe eta ingurumena kaltetu gabe. Hori dela eta, zuntz sintetikoak, larruazal sintetikoak, biskosa, plastiko birziklatua eta mikro-zuntzak erabiltzen ditugu gure produktuak sortzeko.

Gure helburua ez da luxuzko produktu bat egitea, baizik eta, guztiontzako eskuragarria izan daitekeena. Arazo honek klase sozial guztietan eragina du, beraz, beharrezkoa den laguntza ezin da pribilegio batean bihurtu. Hala eta guztiz ere, giltza bat baino garestiagoa da, baina bere berrerabiltzaren gaitasuna dela eta, guztiz errentagarria eta praktikoa da.

Gainera, gure beste helburuetako bat tokiko merkatua sustatzea da eta hari mesede egitea. Kasu honetan, gure helburua inguruko enpresen produktuak erabiltzea da, eta gure lurraldeko denda txikiei, Euskal Herriari, laguntzea.